

Neologismoak



Izena duenak, izana du.
Pour vivre avec son temps.

L'euskara se conjugue au futur

Dans un monde où les technologies, les idées et les réalités sociales se transforment à grande vitesse, les langues aussi sont en perpétuelle évolution.

C'est aussi le cas de la langue basque, qui loin de rester figée dans un conservatisme désuet se réinvente sans cesse.

Chaque mot nouveau est un acte fort de résistance, de créativité et de vitalité. Ils permettent de penser et décrire l'époque actuelle.

Le lexique que tu tiens entre les mains s'ajoute à la collection décalée créée par l'association Mintzalasai. Après la sexualité, les insultes, la bringue et les anglicismes, nous avons voulu compiler quelques néologismes pour encourager les locutrices et locuteurs à jouer avec la langue.

Langue millénaire, l'euskara n'est pas un vestige qui se contente de survivre : elle est vivante, ancrée dans sa communauté, parfois transgressive et plus que jamais tournée vers l'avenir !

À toi de te l'approprier !

Lurrari dagokiona

Environnement et écologie

EKO +

Ekozentrismo: Natura ardatz duen balio-sistema.

Ekoterrorismo: Ingurumena zaintzearen eta babestearen aldeko aktibismoa, batzuek terrorismotzat jotzen dutena.

Ekofabetizazio: Sistema naturalak mantentzen duten prozesuak ulertzeko gaitasuna.

Ekoantsietate: Ingurumenaren aldeko kezka eragiten duen antsietate psikologikoa.

Ekotoxiko: Ingurumenarentzat toxikoa.

Ekofeminismo: Ingurumenaren hondamendia eta emakumeen zapalkuntza patriarkatuaren ondorio direla defendatzen duen teoria.

Ekozidio: Ingurumenari kalte handiak eta iraunkorrak eragiten dizkion legez kanpoko ekintza arbitrarioa.

Zuriketa berde: Enpresa, gobernu edo bestelako erakunde batzuek erabiltzen duten marketin eta komunikazio-estrategia, ingurumenarekiko berez dutena baino begirune handiagoa dutela aditzera ematea helburu duena.



Lurrari dagokiona

Environnement et écologie

Hitz teknikoak

Geomintz: Mintz geosintetikoa, gainazal baten estankotasuna bermatzeko erabiltzen dena.

Agrovoltaiko: Laborantza eta eguzki-instalazio fotovoltaikoak konbinatzen duena.

Aterpe klimatiko: Klima-aldaketaren ondorioetatik, berotik babesteko lekua.

Estraktibismo: Baliabide naturalen ustiapen intentsiboan eta horien esportazioan oinarritutako garapen-eredua.

Artifizializazio: Ingurune natural bat erabilera jakin baterako edo helburu estetikoekin eraldatzea.

Kolapsismo: Giza zibilizazio industrialaren hondamena mehatxu erreala dela defendatzen duen teoria.

Neorrural: Hiritik landa-eremura bizitzera joan den kaletarra.

Antropizatu: Ingurune natural bat giza jardueraren ondorioz eraldatu.

Laborategi bizidun: Berrikuntza irekiko laborategia, erabiltzailea ardatz duena.



Teknologia aitzina doa

Nouvelles technologies

Frikia zira? _____

Teknofeudalismo: Herritarrak gobernuek kontrolatutako plataformen erabiltzaile hutsak dira, eta ez dira erabiltzen dituzten baliabide digitalen edo sortzen dituzten datuen jabe.

Teknofobia: Teknologiaren aurkako jarrera.

Teknofilia: Teknologiarekiko zaletasuna.

Hiperkonektibitate: Interneten bidez modu ia jarraituan konektatuta egotea.

Ziberzaintza: Ingurune digitaleko jarduerak, datuak eta komunikazioak monitorizatzea, biltzea eta aztertzea.

Karbono-aztarna digital: Gailu digitalak eta hodeiko zerbitzuak erabiltzearen ondoriozkoa.

Kantzelatu: Balio jakin batzuen izenean itzal handiko pertsona edo lan bat imajinario edo oroimen publikotik ezabatzen saiatu.

Sare sozialak _____

Transmedia: Euskarri desberdinak baliatuz komunikatzen den istorioa, edukia.

Posteatu: Interneten mezu bat argitaratu.

Biralizatu: Biral bihurtu.

Teknologia aitzina doa

Nouvelles technologies

CHAT GPT? _____

Prompt: Adimen artifizialeko sistemetan, prozesu bat abiarazten duen agindua.

Geolokalizatu: Norbaiten edo zerbaiten kokapen geografikoa baliabide teknologikoen bidez aurkitu edo zehaztu.

Haluzinatu: Adimen artifizialak okerreko erantzunak edo berak asmatutakoak sortu.

Googleatu: Googlen bilatu.

Izen berri batzuk

Noms communs

Ahizpatasun: Emakumeen arteko lotura estua, bizipenak, interesak, kezkak eta abar partekatzean oinarritua.

Ihes-gela: Taldean jokatzeko den abentura jokoak, gela itxi batetik irten ahal izateko taldekideek proba-segida bat denbora mugatuan egitean datzana.

Errentista: Lanik egin gabe, bere jabegoen errentetatik bizi den pertsona.

Narkopisu: Legez kanpoko drogak saltzen / kontsumitzen diren etxebizitza.

Kufija: Ekialde Hurbileko buruzapi tradizionala.

Hizkuntzarekin jolastuz

Mugimenduan den mundu batean, ezinbestekoa da hizkuntzak ere mugimenduan izatea. Etorkizunean proiektatzen diren hizkuntza guziak bezala, euskarak ere errealitate berriak izendatzeko hitz berriak asmatzen ditu. Hauei deitzen zaie « neologismo ».

Biziberritze prozesuan den hizkuntza minorizatu batek komunitate sortzaile, urratzaile eta eraldatzailea beharrezkoa du. Ez baita aski hitz berriak plaza publikoan ematea; hiztunek ez badituzte berenganatzen, terminologoen burukeria soila izanen da. Josta gaitezen beraz, euskarak karrikaren usaina izan dezan.

Besta, kokinkeriak, ingeleskadak eta irainak landu ondoren, sakelako hiztegi dekalatu honekin, euskarazko hitz eta erranaldi berriak publiko zabalaren esku eman nahi izan ditugu. Milesker UZEI Terminologia eta lexikografia zentroari, biziarazten duen Neoloteka erabiltzeko aukera emateagatik. Mundu geroz eta nahasiago batean, inoiz baino gehiago mintza gaitezen!



Info+: uzei.eus/neoloteka

Aditzak ere bizi dira

Les verbes

Erromantizatu: Izaera erromantikoa hartu edo eman.

Enpatizatu: Enpatia sentitu.

Desestresatu: Estresa kendu edo arindu.

Prokrastinatu: Egin beharreko zerbait gerorako utzi.

Prestigiatu: Prestigioa eman.

Performatu: Antzeztu, interpretatu, rol bat jokatu.

Bapeatu: Gailu elektronikoen baten bidez lurrundutako substantzia bat ahotik arnastuz kontsumitu.

Problematizatu: Arazo gisa hartu edo tratatu.

Lozorrotu: Lozorroak hartu; loak hartu.

Uberizatu: Bezeroak eta hornitzaileak aplikazio mugikorren bidez harremanetan jarritz, zerbitzu komertzial bat eraldatu.

Desturistikatu: Turistikazioaren kontrako prozesua.

Desaurreztu: Irabazten dena baino gehiago gastatu, horretarako aurrezkiak erabiliz.

Kosifikatu: Gauza bihurtzea.

Elitizatu: Elitista bilakatu.

Poteolitika

Pour débattre

Faxistizazio: Faxista bihurtzea.

Gerra hibrido: Ekintza militarrek eta estrategiak konbinatzen dituen gatazka.

Nekropolitika: Botere politikoak eta sozialak, indarkeria eta sufrimendua kudeatuz eta arautuz defendatzen duen teoria.

Eurokrata: Europar Batasunaren erakunderen bateko funtzionarioa edo goi-kargua.

Tardofrankismo: Frankismoaren azken etapa.

Boterekeria: Botere-gehiegikeria.

Meritokrazia: Ardura-postuak betetzeko, gaitasun edo merezimendu egokiak dituzten pertsonak hautatzen dituen gizarte-antolamendua.

Errelato: Gertaera bat(zu)en kontakizuna, pentsamolde edo mugimendu politiko baten mesedetan sortutakoa.

Punitibismo: Zigorrak ezarriz gaizkileen portaera aldaraz daitekeela eta gaizkileek egintza gaitzesgarriak egiteari utziko diotela dioen ideologia.

Zisheteropatriarkatu: Gizonezko heterosexuak eta zisgeneroaren irizpidean oinarritzen den gizarte-antolamendua.

Aitakeria: Jarrera paternalista.

Medikuntzako hiztegia

En médecine

Kopa menstrual: Hilekoaren odoljariora biltzeko, baginan sartzen den kopa-formako ontzia.

Hormonatu: Hormona-tratamendua hartu.

Nozebo: Plazeboaren antonimoa.

Polimedikazio: Botika desberdin asko hartzea.

Ortorexia: Elikadura-portaeraren nahasmendua, ustez osasungarriak diren elikagaiak soilik jaten dituenak.

Neurodibergentzia: Garunaren ezohiko portaera edo ezaugarria, informazioa prozesatzeko moduan eragiten duena.

Kirola | Sport

Plakatu: Zenbait kirolean, arauak baimentzen duen moduan helduz lurrera botatzen saiatzea.

Burpee: Ariketa fisikoa, kokoriko egonik eta esku-ahurrak lurrean pausatuz, zangoak atzera luzatu, berriro hasierako posizioa itzuli eta, azkenik, besoak gorantz luzatuz jauzi egitean datzana.

Ultramaratoi: Maratoien ohiko 42,195 km-etatik gorako distantzia egitean datzan iraupen-lasterketa.

Beldur anitz

Phobie et exclusion

Inklusibitate: Gizartean gutxiengoaren integrazioa sustatzeko edo errazteko joera.

Glotofobia: Pertsona bat edo pertsona-talde bat hitz egiten duen hizkuntzagatik edo hizkeragatik diskriminatzea.

Arrazializatu: Arrazan oinarrituta baztertu.

Aporofobia: Pertsona behartsuen edo babesgabetasun-egoeran daudenen gorrotoa.

Lodifobia: Pertsona lodien gorrotoa.

Ijitofobia: Ijitoen gorrotoa.

Turistofobia: Lurralde bateko biztanleen turistekiko ezinikusia, beren eskubideak, abantailak eta lasaitasuna galtzen dituztelako.

Serofobia: Seropositiboen gorrotoa.

LGBTIfobia: LGBTI+ pertsonak osatzen duten kolektiboaren gorrotoa.

Sexilio: Gutxiengo sexual bateko kide izateagatik jaioterrietik joan behar izatea.

Audismo: Gorren edo entzuteko desgaitasuna dutenen aurkako jarrera.

Kapazitismo: Desgaitasuna duten pertsonen aurkako diskriminazioa.

Biktimario: Delitua egiten duen eta beste norbait delitu horren biktima bihurtarazten duen pertsona.

Ahoskera | Prononciation

En euskara, on prononce toutes les lettres.
Par exemple **eu** se dit « **éou** », **au** se dit
« **aou** » (prononcé en une seule syllabe).

Sorkuntza: Bixoko • Inprim: Vert • Lurtera ez bola

U se prononce « **ou** »

E se prononce « **é** »

Z se prononce « **ss** »

S se prononce « **sh** »

X se prononce « **ch** »

G se prononce « **gu** »

J se prononce « **y** »

Ñ se prononce « **gn** »

N se prononce « **nn** »

R son doux entre 2 voyelles (**ere**)

RR se prononce comme le « **r** »
en français.



ON! Pizten
gaituena
Se connecter
à l'euskara

euskara@on.eus
www.on.eus

Mintza  Lasai

info@mintzalasai.eus
www.mintzalasai.eus